



**Arartekoaren 2020R-34-20 Ebazpena, 2020ko irailaren 28koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailari gomendatzen zaio diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskaera baten ukoa berrikusteko, zuzenbidearekin bat ez etortzeagatik eta aintzat ez hartzeagatik adingabearen interes gorenaren lehentasuna.**

### Aurrekariak

1.-Herritar batek kexa jarri zuen Arartekoan, eta Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta (aurrerantzean, DSBE) ukatu izateagatik esku hartzeko eskatu zion.

Diru-laguntzen eskatzaileak bere kexa-idatzian honako hau azaldu du: adingabea (17 urtekoa) eta bere amarekin bizi zena, haurdun geratu zela, 21 urteko gazte batekin zeukan harreman informal baten ondorioz. Une horretan, ama-alabak amak azpierrean zeukan gela batean bizi ziren.

Kexagilearen amak jakin zuenean alaba haurdun zegoela, Lanbiden jakinarazi behar zuela pentsatu zuen. Geroago ere, haurra jaio zenean (2019ko apirilaren 19an), hala jakinarazi zuen.

Jakinarazpen horren ondorio gisa, enpleguko organismo autonomoak bere DSBE espedientea berrikusi zuen. Izan ere, irizten zion bizikidetzaren unitatean aurrez izandako aldaketa bat jakinarazi ez zuela iradokitzen zuten zantzuak zeudela. Alabaren eta mutil gaztearen artean aurrez ezkontzako edo antzeko harremanen bat egon izanaren aukera aipatzen zuen.

Bestalde, umea jaio zenean, alaba eta umea mutilaren gurasoen etxera joan ziren bizitzera. Une horretan, kexagilearen amak eskatu zuen bere alabari eta bilobari erroldan baja ematea. Zehazki, 2019ko maiatzaren 2ko eskaeraren bidez egin zuen hori. Hala ere, udal bulegoetan jakinarazi zieten adingabearen errolda ezin zela aldatu alta eman zenetik hilabete igaro arte. Ondorioz, kexagilearen eta bere alabaren errolda aldaketaren ondorioak 2019ko ekainaren 3tik aurrera sortu ziren.

Kexagileak, 18 urte bete bezain laster, DSBE jasotzeko bere eskaera izapidetu zuen 2019ko irailaren 3an. Enpleguko organismo autonomoak, 2019ko ekainaren 19ko ebazpenaren bidez, zortzi hilabete beranduago, ukatu egin zion DSBERako eskubidea, Diru Sarrerak Bermatzeari eta Gizarteratzeari buruzko abenduaren





23ko 18/2003 Legearen 28.3 artikuluan ezarritakoa aplikatuz. Izan ere, ulertu zuen diru-laguntza eskatu zuela aurreko espedientea iraungi zenetik urtebete igaro baino lehenago.

Kexagileak desadostasuna azaldu zuen enpleguko organismo autonomoaren erabakiarekin. Horretarako, zegokion aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu zuen 2020ko urtarrilaren 15ean. Gaur egun oraindik ez da errekurtso hori ebatzi.

Interesdunak beste eskaera bat aurkeztu zuen, eta arrazoi berberengatik ukatu zitzaion. Berriki, eskaera ukatzeko agirian adierazitako epea igaro ostean, beste eskaera bat izapidetu zuen (ekainaren 19ko datarekin).

2.-Arartekoak, jasotako informazioa ikusita, informazio-eskaera egin zion Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari.

Zehazki, gai hauei buruzko informazio gehiago eskatu zuen:

- a) Kexagileak 2019ko irailaren 13an aurkeztu zuen diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskaera ukatzeko arrazoi zehatzak.
- b) Zer egoeratan dauden kexagileak aurkeztutako aukerako berraztertze errekurtsoaren izapidetzea, bai eta egindako azkeneko eskaera ere.
- c) Kexaren xedearekin erlazionatuta dagoen eta gure jardunerako interesgarria izan daitekeen beste edozein inguruabar.

3.-Lanbidek bere zuzendari nagusiaren txostenaren bidez erantzun dio Arartekoari. Zehazki:

*“Ebazpen horren arrazoia da xxx xxxx-ek<sup>1</sup> 1996/rgi/000106 espedienteari bizikidetzaren unitatean baja eman ziola hura azkentzeko ebazpena eman aurretik, baina hura izan zen azkentze horren arrazoia, kexan bertan adierazten duzun bezala, eta, beraz, geroagoko beste espediente batzuk zigortzea egozten zaio.*

*2020ko urtarrilaren 15ean aurkeztutako errekurtsoa berrikusi eta ebatzi gabe dago.”*

---

<sup>1</sup> Kexagilea



## Gogoetak

1.-Espediente honetan berrikusten ari den DSBE aitortzeko eskaeraren ukoari Lanbidek emandako arrazoa izan da aurrez bazegoela iraugitze bat, eskatzailearen amaren diru-laguntzen espedientearekin lotua, eta iraugitze hori gertatu zela ez zelako jakinarazi gertakarien unean adingabea zen kexagilearen eta 21 urteko gazte baten arteko ezkontzako edo antzeko harremana zegoela.

Arartekoak, egitatezko aurrekariak eta kexari erantsitako dokumentazioa aztertu ostean, uste du kexagilearen amaren titulartasuneko prestazioa amaitzeko erabakia ez zettorrela bat zuzenbidearekin. Jarraian azaldutakoak dira erakunde hau hori baieztatzerantz eraman duten arrazoiak.

Diru-sarrerak bermatzeko errentaren diru-laguntzaren amaiera aurreikusita dago abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 28. artikuluan. Lehenengo puntuko c) apartatuak honako hau jasotzen du DSBE iraugitzeko arrazoi gisa: *“c) Behin betiko galtzea eskubidea aitortzeko exijitutako baldintzetako bat”*.

Arrazoi horretan oinarrituta, uste izanda kexa horren sustatzailearen amak ez zuela jakinarazi bere bizikidetzaren unitateko aldaketa, Lanbidek 2019ko ekainaren 19an iraungi zituen DSBE eta Etxebizitzako Laguntza Osagarria.

Bizikidetzaren unitatearen osaketari buruzko informazioa diru-laguntzen titularrak jakinarazi behar du, bat etorritik Diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 12.1f.1) artikularekin. Dekretuaren manu horren arabera, nahitaezkoa da, sortzen diren unetik aurrera zenbatzen hasi eta gehieneko hamabost eguneko epean, prestaziorako eskubidea aldatzea, etetea edo azkentzea ekar dezaketen eta ondoren adierazten diren gertakariak jakinaraztea; besteak beste, bizikidetzaren unitatearen osaketari eragiten dietenak.

Diru-sarrerak bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak pertsona batzuei edo pertsona talde batzuei bizikidetzaren unitate izaera ezartzen die, horien artean, honako hauek, 9.1.b) artikuluan jasotzen denez: *“Etxebizitza edo bizitoki berean elkarrekin bizi diren bi pertsona edo gehiago, elkarren artean batuta daudenean ezkontzaren edo antzeko harreman iraunkor baten bidez, adopzioaren bidez, laugarren mailarainoko odol-ahaidetasunaren edo bigarren mailarainoko ezkontza-ahaidetasunaren bidez, edo familia-harrerako harreman iraunkor baten edo adopzio aurreko edo tutoretzapeko harreman baten bidez”*.





Esku artean dugun kasu honetan, nabarmendu behar da kexagilearen amak jakin zuenean alaba haurdun zegoela, Lanbiden jakinarazi behar zuela pentsatu zuela. Geroago ere, haurra jaio zenean (2019ko apirilaren 19an), hala jakinarazi zuen. Egun batzuk beranduago, kexagilearen amak eskatu zuen bere alabari eta bilobari erroldan baja ematea. Zehazki, 2019ko maiatzaren 2ko eskaeraren bidez egin zuen hori, eta eskaerak 2019ko ekainaren 3tik aurrera sortu zituen ondorioak.

Lanbidek ziurtzat jo zuen ezkontzako edo antzeko harreman bat egon zela interesdunaren (17 urteko adingabea) eta 21 urteko gaztearen artean. Horiek, baina, harreman informala zeukaten. Ondorioztatu zuen, gainera, harreman hori erabakigarria zela kexagilearen amaren bizikidetzaren osaketaren eta bere diru-sarreraren berri izateko. Lanbidek ulertu zuen harreman afektibo bat egotea bizikidetzaren berean bizitzearen sinonimo zela, eta horregatik amaitu zuen, ekainaren 19ko ebazpenaren bidez, interesdunaren amaren diru-laguntza espedientea.

Beste kexa-espeditente batzuetako antzeko kasuak aztertu zituen Arartekoak, eta honako testu honetan jasota daude: *Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituen txosten diagnostikoa, 2017<sup>2</sup>. Arartekoaren iritziz, *more uxorio* harreman bat edo egitatezko harreman bat dagoela zehaztu ahal izateko, beharrezkoa izango da egiaztatzea bi pertsonen artean denboran luzatu den ohikotasun, egonkortasun eta iraunkortasun ezaugarriak dituzten bizitza eta interesen komunitatea dagoela; hala, ezkontideen antzekoa den harremana sortuko litzateke.*

Zentzu horretan, erabilgarria da Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 3. zenbakiko Epaitegiak urtarrilaren 20ko 9/2014 Epaian azaldutakoa hona ekartzea. *More uxorio* ezkontza-bizikidetzaren egoteko honako baldintza hauek bete behar direla dio: "...concurra una comunidad de vida y de intereses a la manera de unión matrimonial, siendo preciso para apreciar su existencia que se dé una convivencia que reúna las notas de habitualidad, estabilidad y permanencia en el tiempo, con la creación de apariencia similar al conyugal, no siendo suficiente la convivencia esporádica, circunstancial u ocasional, ni tampoco la simple relación

<sup>2</sup> Hemen eskuragarri: [https://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4199\\_1.pdf](https://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4199_1.pdf)



*afectiva, aunque sea prolongada en el tiempo, si no va acompañada de esa comunidad de vida, con las notas indicadas, que permita asimilarla a la marital”.*

Puntu honetara iritsita, galdetu behar da ea nola zehaztu behar den 17 eta 21 urteko bi pertsonaren arteko ezkontzako edo antzeko harreman baten hasiera, kontuan izanda, bereziki, pertsonetako bat bere amarekin bizi zela, azken horrek azpierrentatutako gela batean. Hala, zaila izango litzateke horren leku txikian hiru pertsona horiek elkarrekin bizitzea.

Hala, puntu honetaraino azaldutako guztiagatik, defentsa-erakunde honen aburuz, Lanbidek ez zuen iraungi behar interesdunaren amaren prestazioa; izan ere, bere 17 urteko alabaren eta 21 urteko gazte baten arteko ezkontzako edo antzeko harremana zegoela ez jakinarazteagatik baldintzak ustez urratu izana ezin daiteke sartu DSBE jasotzeko interes kasuen baitan, ez baitio eragiten ez bizikidetzaren unitate baten osaketa errealarari, eta ez, are garrantzitsuagoa dena, unitate horrek eskura izan ditzakeen baliabideei. Gainera, kasu honetan, egiaztatuta gelditu da kexagilearen amak bete zuela, DSBE eta Etxebizitzako Laguntza Osagarriaren titular gisa, bere bizikidetzaren unitatearen osaketari eragiten dioten gertakariak Lanbideri jakinarazteko duen betebeharra, bere alabaren haurdunaldiaren berri eman baitzuen.

Bestalde, kexa honen xede den ukoaren aurreko iraungitzeari buruzko gogoetekin amaitzeko, Arartekoak azaldu nahi du baldintzak ez betetzea ez dagoela jasota urtebetez prestazioa eskatzeko ezintasuna dakarten kasuen artean. Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko azaroaren 24ko 4/2011 Legeak aldatzen duen 18/2008 Legearen 28. artikuluan aipatutako artikuluan dagoeneko jasotzen dira iraungitzearen ondorioak. Zehazki, artikulua horren hirugarren atalak honako hau dio:

*“3. Iraungitzeko arrazoia betebeharrak ez betetzea edo arau-hausteak egitea izan bada, titularrak ezin izango du berriz ere diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatu, edozein izanik ere modalitatea, eskubidea azkendu den unetik urtebete igaro arte. Ondorio bera ekarriko du artikulua honen 1.d eta 1.e) ataletan azaldutako arrazoientzat iraungitzen bada eskubidea”.*

Egiaztatu ahal izan denez, legeak ez du jasotzen baldintzak galtzeagatik iraungitzeak (28.1 artikuluko c) atalean jasotako iraungitzeko kausa) berekin dakarrenik hurrengo urtean zehar DSBE berriz ere eskatzeko ezintasuna. Beraz,





neurri hori aplikatzearen Lanbideren erabakia ere ez litzateke justifikatuta egongo.

2.-Kexagilearen bizikidetzaren unitatea, DSBEren lehen eskaera izapidetu zenean, 2019ko irailaren 3an, honako hauek osatzen zuten: kexagileak berak, hilabete batzuk baino ez zituen bere haurrak eta kexagilearen bikotekide ohi eta haurraren aitak.

Une horretan, gainera, jada ez zen bere amarekin bizi. Izan ere, etxebizitza berriko erroldako alta 2019ko ekainaren 3an gertatu zen; hau da, Lanbidek kexagilearen amaren prestazioa iraungi baino aste batzuk lehenago. Hori, esan bezala, Lanbideko zuzendari nagusiaren 2019ko ekainaren 10eko ebazpenaren bidez egin zen.

Erakunde honi bidali dion txostenean, Lanbidek argudiatu du amaren espedientearen iraungitzearen ondorioek eragina dutela kexagilearengan, hain zuzen, berak eragin zituelako.

Arartekoaren iritziz, aurreko atalean garatu den bezala, kexagilearen amaren prestazioa iraungitzeko erabakiak ere ez dauka nahikoa oinarri legal, ez eta iraungitze horri urtebeteko zehapena gehitzearenak ere. Hortik abiatuta, iraungitze horren ondorioak beste bizikidetzaren unitate batera zabaltzeko erabakia, aurrez amaren etxebizitza berean bizi izateagatik, berrikusi egin behar dela uste du defentsa-erakunde honek.

Izan ere, DSBEren araudiak aipatzen du DSBE jasotzeari lotutako betebeharrak titularrei exijituko zaizkiela (maiatzaren 15eko 147/2010 Dekretuko 12. artikulua). Horrenbestez, ezin daiteke adierazi interesdunak inolako betebeharrak zeukanik bizikidetzaren unitateari eragin ziezaioketen gertaerak jakinarazteko. Gogorarazi behar da bera soilik onuraduna zela bizikidetzaren unitate horretan, eta bere ama zela prestazioen titularra.

Bestalde, adierazi behar da administrazio egintzen ondorioak Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 29. artikuluan definitzen direla. Honela dio: *“Administrazio Zuzenbideari dagozkion administrazio publikoaren egintzak presuntzioz baliozkotzat hartuko dira eta ondorioak izango dituzte ematen diren egunetik, haietan besterik xedatzen ez bada”*.





Aurrez aipatutako 18/2008 Legeak, DSBEn iraungipena eta horren ondorioak arautzen dituen atalean, ez du jasotzen urtebeteko zehapena bizikidetzaren unitateko beste kide batzuegana zabaltzeko aukera. Hala ere, egia da Diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 50. artikulua, zeinak prestazioa iraungitzearen ondorioak ere arautzen baitituen, aipatzen duela administrazio eskudunak, kasu honetan Lanbidek, baduela aukera espedientearen iraungitzearen ondorioek titularrari berari eragiteaz gain, bizikidetzaren unitateko gainerako kideetara zabaltzeko. Zehazki, artikulua honako hau dio:

*"2.– Prestazioa azkentzeko arrazoia betebeharrak ez betetzea edo arau-haustea egitea izan bada, titularrak ezin izango du berriz ere diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatu (edozein izanik ere modalitatea) eskubidea azkendu den unetik urtebete igaro arte. Ezintasun hori bere bizikidetzaren unitatean titular izaera izan dezaketen kide guztietara hedatuko ahal izango da, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak behar bezala arrazoituta txosten-proposamena egin ondoren. (...)"*

Dekretu beraren zioen azalpenaren arabera, azkentzearen erregulazioan, Dekretuak aurreikusten du prestazioa azkentzen denean betebeharrak ez betetzeagatik, arau-haustea egiteagatik edo hemezortzi hilabete baino gehiagoko etete-egoera egoteagatik (salbu eta aurreikusitako mugatik gorako diru-sarrerak aldi baterako jasotzeagatik gertatzen bada), titularrak ezin izango duela berriz eskatu iraungitzearen datatik urtebeterako diru-sarrerak. Ezintasun hori bizikidetzaren unitateko edozein kideri ere **zabal dakioke**, baldin eta titular izan badaiteke, alde aurretik oinarrizko gizarte-zerbitzuak txostena eta proposamena egin ondoren.

Arartekoaren iritziz, aukera hori ez da automatikoki aplikatu behar kasu guztietan, are gutxiago beste dirulaguntza bat eskatzen duen pertsona jada ez denean jatorrizko bizikidetzaren unitateko kidea eta Lanbidek iraungitzea ebatzi baino lehenago egin ez duenean.

Aldiz, badirudi legegileak aukera hori txertatu nahi izan duela, hain zuzen, arauak ulertarazten duelako, oro har, diru-laguntzen titularrak soilik izango dela Lanbideren ebazpen ezberdinen ondorioak bere gain hartuko dituen.

Interesgarria da, puntu honetara iritsita, 18/2008 Legeko 28. artikulua transkribatzea. Honako aurreikuspen hau jasotzen du: *"4. Prestaziorako irizpidea urgeztiazko prozeduraz eta lehentasunez izapidetuko da baldin eta ordura arte titularrak zen pertsonari zegokion diru-sarrerak bermatzeko*





*errentarako eskubidea iraungitzeak edo mantentzeak ageriko kalteak ekartzen badizkie bizikidetz-unitateko gainontzeko kideei".*

Erakunde honen aburuz, Lanbidek, aztertutako kasuaren inguruabarrei ahalik eta modurik arrazoizkoen eta bidezkoenean erantzute aldera, diru-laguntzak arautzeko araudiak ematen zion aukera hori baliatu behar izan zuen, eta ahalbidetu, gutxienez, kexagileak DSBE eskuratu ahal izatea 2019ko irailean lehenengoz eskatu zuenetik.

3.-Azken ideia horrekin lotuta, defentsa-erakunde honek agerian utzi nahi du aldea dagoela kexa-espeditate honetan gertatutakoaren eta Lanbidek horri buruz hartu dituen neurrien artean.

Aurreko guztia aztertzetik ondorioztatzen denez, hainbat arrazoi daude pentsatzeko Lanbideren jarduketa proportziorik gabea izan dela eta ondorio larriegiak izan dituela gertaerekin alderatuz gero. Izan ere, 17 eta 21 urteko bi pertsonaren arteko harremana ez jakinarazteak (haurdunaldia gorabehera, ez ziren elkarrekin bizi eta ez zuten iraunkortasun, egonkortasun eta ohikotasun ezaugarriak betetzen zituen harremanik), ekarri zuen amaren DSBE eta Etxebizitzako Laguntza Osagarria iraungitzea. Horren ondorioz, azken horrek ezin izan zituen berriz ere eskatu DSBE eta Etxebizitzako Laguntza Osagarria iraungitzearen ebazpenaren osteko urtebetean zehar. Eta orain, ondorio hori bera izan du iraungitzea ebatzi baino aste batzuk lehenago bizikidetz-unitatea utzi zuen pertsona batengan.

Halaber, ezin daiteke aintzat hartu gabe utzi bizikidetz-unitatean ume jaioberri bat dagoela, hilabete batzuk baino ez zituena kexaren xede den DSBEren ukoa gertatu zen unean. Gaiari eutsiz, erakunde honek berriz ere jotzen du Arartekoaren apirilaren 8ko 2/2015 Gomendio Orokorrera. Horren arabera, *politika publikoetan adingabearen interes nagusia kontuan hartzeko betebeharra dago eta, bereziki, diru-sarrerak bermatzeko sistemari dagokionean.*

Han, araudiaren aplikazioa aztertu genuen, haurren gaietan hitzartutako nazioarteko tresnak kontuan hartuz. Ildo horri jarraikiz, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena barneko zuzenbidera sartzeak adingabearen interes gorena kontuan hartzea dakar, eta araudia Haurren Eskubideen Batzordeak ezarritako parametroei jarraikiz interpretatu eta aplikatzera behartzen ditu botere publikoak. Halaber, Europako Batzordearen gomendioa aipatu genuen, *"Haurrengan inbertitzea: desabantailen zikloa haustea"*, alegia. Dokumentu horrek gutxieneko





diru-sarrerak bermatzeko sistemak haurren biziaren garrantzi handia duela azpimarratzen du, besteak beste. Gainera, honako hau nabarmentzen du: familiak jasotzen dituen prestazioak gurasoetako baten jokabidearen arabera direnean, gurasoen jarduketan aztertzean zehar zuzentasunez jokatu beharra dagoela eta, besteak beste, neurri horiek izan dezaketen eragin negatiboa ebaluatu behar dela.

Eskubide substantiboa da, eta, horrez gain, interpreta daitezkeen printzipio juridikoa eta prozedurazko araua. Beraz, haurri eragiten dion erabakia hartu behar denean, haurraren izan ditzakeen ondorio positibo edo negatiboak kontuan hartu behar dira. Gainera, erabakiak justifikatzean argi eta garbi utziko da berariaz eskubide horri erreparatu zaiola eta beste gogoeta batzuen aldean haurraren interesak babestu direla.

4.-Azkenik, kexagileak jarri duen errekurtsioa ebazteko Lanbidek izan duen atzerapenari buruz, Arartekoak errepikatzen du enpleguko organismo autonomoak eraginkorki bete behar dituela Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean aurreikusitako epeak. Zehazki, lege horren 124.2 artikulua honako hau ezartzen du: berraztertze aukerako errekurtsioak hilabeteko epean ebatzi behar dira, aurkeztu direnetik aurrera zenbatzen hasita.

Esku artean dugun kasuan, kexa 2020ko urtarrilaren 15ean aurkeztu zen, eta gaur-gaurkoz ez da ebatzi.

Gai hori bera aztertzen zuten Arartekoak 2017ko *Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituen diagnostiko-txostenean*. Jaso zuenez, enplegu organismo autonomoak berraztertze aukerako errekurtsioak ebazteko duen epean badago hobetzeko marjina. Zehazki, honako hau adierazten zen:

*“Berraztertze aukerako errekurtsioen ebazpenari dagokionean, ordea, gabeziak ikusi dira, bai horiek ebazteko datan, bai horien edukian. Lanbidek ez du betetzen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 117.2. artikulua horretarako ezartzen duen hilabeteko epea (aurreikuspen hori, egun, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 124. artikuluan dago jasota). Ebazteko epeetan hobekuntza egon dela hauteman bada ere, ebazteko epea laburtzeko beharra dagoela baloratzen dugu oraindik.”*





Azaldutako guztiagatik, eta bat etorritz erakunde hau sortu eta arautzeko otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11 b) artikuluan ezarritakoarekin, Arartekoak honako gomendio hau egiten dio Lan eta Enplegu Sailari:

### **GOMENDIOA**

Arartekoak gomendatzen du, azaldutako guztian oinarrituta, kexagilearen diru-sarrerak bermatzeko errentaren ukoa berrikusteko; izan ere, zuzenbidearekin bat ez datorrela irizten dio, eta ez duela bermatzen adingabearen interes gorenaren lehentasuna betetzea.

